



AJMALINA-TESTARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA

Zertan datza proba?

Zure elektrokardiogramaren (EKG) ondorioz, mediku-taldeak susmatzen du Brugada-ren sindromea izan dezakezula (bihotzeko alterazio elektriko bat). Ajmalina-testaren bidez, baieztatu edo baztertu egin nahi da.

Nola prestatu behar dut probarako?

Beharrezkoa da proba baino gutxienez 6 ordu lehenago ezer ez jatea eta ez edatea. Gosariko ohiko medikazioa har dezakezu, ur pixka bat edanez.

Antikoagulatzaileak hartzen badituzu (tronboak edo koaguluak sortzea saihesten duen medikamentua), mediku-taldeak egun horietan nola hartu azalduko zizun.

Diabetesa baduzu, bete jarraibide hauek:

- Aurreko gauean: hartu ohiko medikazioa.
- Prozeduraren egunean: ez hartu diabetesaren aurkako pilularik gosarian.
- Ez jarri INTSULINA AZKARRIK prozedura baino lehen.
- Goizean intsulina erabiltzen baduzu, prozeduraren ONDOREN jarri.

Probara lagunduta joan zaitez, amaitzean agian laguntza beharko duzu eta.

Nora joan behar dut proba egunean?

5. solairura, AUO-Txagorritxuko D eremura.

Nola egingo didate proba?

- Ohatilan etzango zaituzte eta gorputza gerritik gora agerian izango duzu.
- Prozedura osoan monitorizatuko zaituzte, hauen bidez:
 - Pegatina batzuk (elektrodoak), prozedura osoan, bihotzaren jardueraren erregistroa (elektrokardiograma) ikusteko.
 - Tentsio arteriala hartzeko mahuka bat.
- Erizainak zain bide bat (kateter fin bat) jarriko dizu, ahal dela, eskuineko besoan, ajmalina emateko. Hainbat EKG egingo dira hurrengo ordu erdian. Emaita zein den, zure kardiologoak aztertuko du alterazioa dagoen ala ez.

Probaren gutxi gorabeherako iraupena aldakorra da, 20 eta 30 minutu artekoa.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Behaketan egongo zara, proba amaitu ondorengo 2 eta 4 ordu bitartean.